

Ukan eta Eduki aditzen esangura berezia Atsularren usarioan

Idazle izan nahi dudan aldetik, ba naizela esateak ausartegi baitirudi eta halako modestiaren kontra omen doalako, sarri ibili naiz idazle zaharren lanetan hitzak aztertzen, irudiz sinonimoak direnetatik halako kutsu edo esan nahi berezia aldendu nahiz.

Denen artean beti kezkatu nau UKAN eta EDUKI arteko diferentziak eta horregatik, orain arteko liburuetan argitasunik bat ere ikusten ez nuelarik, hasi nintzen neure kontutik GERO famatua aztertzen.

Uste dut azkenean aurkitu dudala aditz bion arteko tankera ezberdin bat, Atsularrek darabilarik bat ere, beste autore zaharrik honetarako ikutu ez bait dut oraino. Ene saiaera honen ondorioak enetzat gera ez daitezten, hona hemen ene topatuak:

Atsularrek, ia beti, EDUKI erabiltzen du gauza bat beste zerbaiten barruan sartuta edo harekin lotuta dagoenean, gordeta bezala.

UKAN, berriz, agiriko edo gorde ezinezko posesioak adierazteko darabila. Ezin esan nezake kasu guzti guztietan argi ikusten denik diferentzia, baina joera hori nagusia denik ezin uka:

- 1) Aztorea *eskuan* DADUKAZUNEAN...
- 2) Leheneko bihitegiak, ardandegiak, sotoak, salak eta ganbarak handitukoitut, EDUKITZEKO lekhua franko eginen dut...
- 3) Sagarroiaren ipuina: ...ume hek erdi behar duenean bere arantzeez, eta karloez min egiten diote, eta halatan minari errendaturik, erditzeko meneratzen denean, barrenat sartzeintu eta han ahal bezanbat EDUKITZEINTU. Eta nola hala DADUTZAN bitartean ere handitzen eta gogortzen baitira...
- 4) Jainkoak gauza guztien berri, non gure buruko illeak ere, kontatuak DADUTZA...
- 5) Ordea ikhusiko ditutzu halaber, noiz eta gogo zinezzenik, hartan ibenia BAITADUKATE, eta lasterrenik baitoazi...
- 6) Itsasoko untziak, barkha handiak, anhitz DADUKA, karga handia jasaiten du.

XABIER KINTANAK

7) Zeren ezta, soberaniak gainez eragin eztiatzaionik, ezta bere neurria baino gehiago DADUKAIONIK.

8) Zoaz, eta galdegiozu emazte izorrari, ea bederatzi hillabeteak bethez gero, EDUKI, ahal dezakeien haurra sabelean?

9) Bethiere pontu haur, ..., gogoan EDUKITZEN dugula...

10) Haren promesetan, kheinuetan eta are aieruetan ere, fidantzia handia, DADUKAZU. Beraz hunelatan *arrazoiñekin* EDUKIKI dugud guk ere *fidantzia* handia, eta esperantza beroa, guere Jainkoa baithan eta haren miserikordian.

11) Eta bazen athearen aldean ere kutxa bat, erremusinaren EDUKITZEKO untzi bat.

12) Gauza ebatsien pagatu gabe EDUKITZEA...

13) EZNADUKA, ez, bertzeren beldurrak ihes egina...

14) Erregek haur aditu zuenean, sendatutzat ZEDUKAN bere burua.

15) Eta nola Jesu Kristok berak, BAITZEDUKAN bere dibinitatea, eta Jainkotasuna barrenean estalia, eta kanpoan baitzirudien ttipi, eta pobre:...

16) A zein handia den Jainkoak giristino beldur zaizkonentzat gorderik eta estalirik DADUKAN eztitasunaren multzutasuna.

17) Baiña zeren bekhatoreak BAITADUKA bere gogoia, bere gutizia eta desira gutzia bekhatu hartan ibenia...

18) Ez ahalkeak, ez nehorengana DADUKAN amorioak...

19) Zeren lurrak, ehun milla millaren ere, EDUKI ahal dezakeien artho bihi kontu baino...

20) ...Errege faraonek alde guztietatik inguratuak eta ezin ihesik zaidiketen bezala, ustez hartuak eta atrapatuak ZEDUTZANEAN...

Guztietan gauza bera ikusten dela esan genezake, nonbait sartuta dagozela. Gauza bera erabiltzen da oraino Gipuzkoako zenbait tokitan, botilla baten EDUKIA litro batekoa dela esaten denean.

Hona hemen GERO liburutik hor han hemenka aterata, UKAN aditzaren beste zenbait esaldi:

1) Guk *dugun* etsairik handiena geure burua *dugu*.

2) Nola gizon ezkonduak bethi ere *baitu* bere emaztea bere eskuko.

3) Deabruak anhitz sare *badu* ere...

4) Irakurtu izatu dut ezen behin gizon batek *zituela* hirur aztore onak...

5) Bat *dugunean*, bia nahi *ditugu*, bia *ditugunean*, hirur...

UKAN ETA EDUKI

- 6) *Eztugu* deusen eskasik, *eztugu* egun hautan eskean ibiltzeko perilik.
- 7) Beraz esperantza ahal *dukezu*...
- 8) *Duzunean* adiskide bat, aberatsa...
- 9) Gehienik osasuna *duguiño*...
- 10) eta *badut* pagatzeko gogo, eta borondate...
- 11) Galdegiten deratzutenean, zenbat urthe *ditutzun*...

Guztiotan ikus daiteke nola ez den aipatzen ez NON ez ZEREN BARRNEAN diren posesioak. Ba liteke ene eritzi hau guztiz zehatz ez izatea, baina hala ere, ba dirudi Atsularren esaldiak molde honetan tajututa daudela.

RESUMEN

En este artículo se trata de establecer la distinción entre los valores semánticos, en parte concurrentes, de *vasc. ukan* (*du*, etc.) y *eduki* (*daduka*, etcétera). Se estudia para ello el empleo por Axular de uno y otro grupo de formas verbales. Sin ninguna pretensión a una clarificación total, se sigue del examen que Axular, de acuerdo con un uso vivo todavía en nuestros días, emplea *ukan* para indicar la pura posesión, sin connotación local; *eduki*, por el contrario, equivale más bien a 'contener algo', 'tenerlo guardado en', etc., con frecuente mención expresa del lugar (la mano, la matriz, el granero, etcétera) en que ese algo se encuentra sujeto o encerrado.

XABIER KINTANAK

